

ALL MECHANICS




MOVE IN GREEN



CYCLE AND CHARGE



CYCLE AND CHARGE




ALL MECHANICS






Aurkibidea


- 1. Deskripzioa**
 - 2. Balio proposamena**
 - 3. Merkatuaren segmentazioa**
 - 4. Funtzesko sozietateak**
 - 5. Diru sarrerak**
 - 6. Banaketa eta komunikazio
kanalak**
 - 7. Bezeroarekiko harremanak**
 - 8. Funtzesko baliabideak**
 - 9. Funtzesko jarduerak**
 - 10. Finantzaketa plana**
- 

Deskripzioa

ALL MECHANICS gara, lau laguneko enpresa bat. Bizikletetan jarri ahal den buje-dinamo batek elikatutako gailu-kargagailu bat sortzen dugu. Gure produktuari esker, bezeroek ez dute gailu txikien bateriaz kezkatu beharko mugitzen ari diren bitartean. Dena modu jasangarrian eta planetarekin konprometituta sortzen ahalegintzen gara.

Eta gure enpresa martxan jartzeko canvas hau sortu dugu






BALIO PROPOSAMENA

Pertsona askok arazo edo behar handi bati aurre egiten diote: mugimenduan dauden bitartean (txirrindularitza, kanpaldia edo bidai luzeak egiteko uneetan), energia iturri eskuragarririk ez izatea. Egoera horietan, telefono mugikorrak, GPS gailuak, aurikularrak, argiak edo bestelako tresna elektronikoak energia agortu dezakete, eta horrek segurtasuna, komunikazioa eta esperientzia orokorra arriskuan jar dezake.

Guk, arazo eta behar horiek konpontzeko asmoarekin, irtenbide berritzaile bat garatzen dugu: energia mugikor eta jasangarria sortzeko eta gordetzeko sistema bat, erabiltzaileen mugimenduarekin bateragarria eta ingurumenarekiko arduratsua dena. Mugimenduzko energia harrapatzea: Pisu arineko mekanismoak sortu daitezke, adibidez, motxilen gorabeheraz sortzen den mugimendua energia bihurtzen dutenak.

- Bateri eramangarri eta trinkoak: Energia sortzearekin batera, sortutakoa gordetzeko ahalmen handiko, baina trinkoak eta arinak diren bateriak proposatzen ditugu. Hauek hainbat portu izan ditzakete (USB, USB-C, etab.) hainbat gailu kargatzeko.
 - Energia kudeatzeko teknologia adimenduna: Bateriak automatikoki energia erabilgarritasun mailaren arabera kudeatzeko gai dira, gailu bakoitzaren beharretara egokituz.
 - Teknologia honek karbono-aztarna murriztea du helburu, energia fosiletan oinarritu beharrean, erabiltzaileen mugimendua eta energia berriztagarriak baliatuz.
 - Material birziklagarri eta iraunkorretan oinarritzea, produktua ingurumenarekiko arduratsua izan dadin.
- 

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA


Cycle and Charge 16 urtetik gorako erabiltzaileentzako pentsatuta dago. Gailuak kargatzeko kargadore honek, klase ertain edo altuko pertsonen beharrei erantzuten die, berrikuntza eta jasangarritasuna baloratzen dutenentzat aproposa izanik. Teknologia modernoetan inbertitzeko interesa dutenentzat erakargarria da, bai osasunarekiko eta ingurumenarekiko arduradunak diren erabiltzaileentzat, bai bizikletaren erabileraren bidez energia propioa sortzeko aukera bilatzen dutenentzat.

Gailuak kargatzeko kargadore hau, hainbat ingurunetarako egokitua dago: hirietan, eguneroko garraiorako irtenbide iraunkorra eskaintzen die erabiltzaileei; mendialde eta landa eremuetan, energia autonomoa behar dutenentzat baliagarria da; eta bizikleta-turismoan, autonomia eta gailuak erabilgarri izateko aukera bermatzen die bidaiariei.

Esan bezala bizikleta-turistentzat ezinbesteko laguntza da *Cicle and Charge*, bidaietan gailu elektronikoak egonkor mantentzeko energia-iturri autonomoa eskainiz. Hiriko mugikortasun erabiltzaileentzat, eguneroko ibilbideetan edo lanera joateko irtenbide jasangarria eta praktikoa da. Kirolariek eta entrenatzaileek energia-iturri iraunkor hau kirol-saioetan aprobeitza dezakete, entrenamendua eten gabe.

Honetaz gain, balio eta jarrera jasangarriak dituzten erabiltzaileentzat pentsatuta dago, bereziki ingurumenarekiko sentsibiltatea eta energia berriztagarrien aldeko interesa dutenentzat. Teknologia berritzaile eta jasangarriak gustuko dituzten pertsonak erakartzen ditu, bizikleta garraiobide aktibo eta ekologiko gisa erabiltzeko ohitura dutenentzat aproposa izanik. Bizitza estilo aktiboa dutenek, hala nola kirola eta naturarekin harreman zuzena baloratzen dutenek, bizikletaren erabileran autonomia handiagoa aurkituko dute, bai eguneroko mugikortasunerako, bai aisialdirako edo bidaietarako.


Segmentazio hau marketin estrategiak modu eraginkorrean diseinatzeko erabiliko dugu, bezero potentzialen beharrak eta interesak ulertuz. Mezua ingurumena errespetatzen duen eta mugikortasun autonomoa eskaintzen duen produktua da.




FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure kargailu aurrerakoia merkaturatzeko eta ahalik eta publiko zabalenera iristeko, aliantza estrategiko bat proposatzen dugu **Decathlon, Media Markt eta El Corte Inglés** bezalako banaketa-kate garrantzitsuekin. Merkatu-sektore desberdinetan erreferentziazkoak diren enpresa hauek gure produktua sustatzeko plataforma ezin hobea eskaintzen dute, kirol eta teknologia zaleengandik hasi eta kontsumitzaile orokorreraino. Elkarlan honen bidez, gure kargailua bezeroen eskura egongo litzateke leku estrategikoetan, erosotasuna eta eskuragarritasuna hobetuz. Horretaz gain, enpresa hauek hornitzaile papera beteko dute kargagailua sortzeko beharrezko materiala emanez.

Gure kargailu berritzailea merkatuan zabaltzeko eta bezero gehiagorengana iristeko, aliantza estrategiko bat proposatzen dugu **Orbea, Mendiz eta BH** enpresa ezagunekin. Hauek, mundu mailan ezagunak diren bizikleta ekoizleak izanik, gure produktua osagarri ezin hobea bihurtuko dute euren eskaintza teknologikoan. Elkarrekin lan eginez, gure kargailuaren erabilera zabaltzeaz gain, bezeroei kalitatezko soluzio bat eskainiko diegu, bizikletaren autonomia eta esperientzia hobetuz. Aliantza honi esker, merkatuan lehiakortasuna areagotuko dugu, marken arteko sinergiak aprobetxatuz eta bezero berriak erakarriz.






DIRU SARRERAK

Gure diru sarrera nagusiak gure produktuaren salmentatik etorriko dira, %90 izango da eta beste %10a saldu osteko zerbitzua izango da saldutako produktuen konponketak.

Gure produktuak 150-200€ gehi bidalketa kostatuko du.

Gure enpresaren inbertsioa 20000 eurotan ezartzen da, enpresako lau bazkideek behar den guztia erosteko eta ordaintzeko. Erreminta, lokalaren alokairua, produktua sortzeko materiala...






BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK


Online sustapena estrategia garrantzitsua izango da gure kargadorearen zabalkundean, produktua sare sozialetan eta webgune espezializatuetan promozionatuz. Hori dela eta, bizikleta eta teknologia jasangarriari buruzko plataformetan eta komunitateetan aktiboak izango gara, non erabiltzaileek ingurumenarekiko sentsibilitatea eta berrikuntza baloratzen dituzten. Facebook, Instagram eta Twitter bezalako sare sozialen bidez, ikus-entzunezko eduki erakargarriak eta infografiak partekatuko ditugu, baita blogetan eta forotan artikulua eta errepasoak argitaratuko ditugu, bezero potentzialen arreta erakartzeko eta produktua ezagutzera emateko. Horrela, gure produktua modu zuzenean eta eraginkorrean helaraziko diegu interesatuta egon daitezkeen erabiltzaileei.

Bizikleta-denda eta azokak izango dira gure kargadorearen sustapenerako gune estrategikoak El corte ingles, Decathlon... Hiri mugikortasunaren eta bizikleta zaleen artean eragina izateko, dendetan eta ekitaldietan (hala nola, bizikleta azoketan) aurkeztuko dugu produktua, non erabiltzaileek zuzenean esperimendu ahal izango duten kargadorearen abantailak. Denda fisikoetan erakusketak eta demoak antolatuko ditugu, bezeroei produktua lehen eskutik erakusteko eta haien zalantza argitzeko. Era berean, azoketan eta ekitaldi espezializatuetan parte hartuko dugu, non produktua zuzenean sustatu eta bezero potentzialen artean harreman zuzena ezarri ahal izango dugun, marketin zuzena eta partaidetza sustatuz.



Salmenta kanal espezializatuak erabiltzea funtsezkoa da produktuaren irismena eta eskuragarritasuna handitzeko. Denda fisikoetan presentzia izatea, txirrindularitza eta kanpoko jardueretan espezializatutako establezimenduetan, bezero potentzialak produktuarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera ematen du. Horrez gain, online plataforma espezializatuetan, hala nola Decathlon edo Media Markt-en, produktuaren salmenta sustatzeak ikusgarritasun globala bermatzen du, aire zabaleko zaleei errazago iristeko. Azkenik, gure webgune propioa sortzea ezinbestekoa da; bertan, erabiltzaileek produktuaren inguruko informazio guztia aurkituko dute eta zuzenean erosi ahal izango dute, esperientzia sinplea eta erakargarria eskainiz.







BEZEROAREKIKO HARREMANA

Marketin digitalerako, sare sozialen indarra aprobetxatu behar da, X (Twitter), Instagram eta Facebook, non produktuaren erabilera praktikoa eta onurak erakusten dituzten eduki erakargarriak eta inspiratzaileak argitaratu daitezkeen. Adibidez, mendiko ibilbide batean GPSa kargatuta mantentzen duen. Gainera, influencer ezinbestekoak dira, adibidez: Alex Medina mtb, Sam Pilgrim edo Cecilia Sopena; txirrindularitza lotutako eragileekin lan eginez, produktua modu naturalean eta fidagarrian aurkez daiteke haien jarraitzaileei, produktuaren erabilgarritasuna eta abantailak azpimarratuz eduki benetako eta eraginkorraren bidez.

Promozioak eta eskaintza eksklusiboak erabiltzea estrategia eraginkorra da bezero berriak erakartzeko eta fidelizazioa sustatzeko. Lehen erosleentzat deskontuak edo pakete bereziak, hala nola dinamo kargagailua eta osagarri gehigarria prezio murriztuan, erabiltzaileak erosketa egitera animatzen ditu.

Bezeroekin harreman sendoa izateko, garrantzitsua da haien beharrak entzutea eta irtenbideak eskaintzea.







FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren funtsezko baliabide fisikoak lokailuak eta erremintak dira, kargagailuak sortzeko eta konpontzeko prozesuaren oinarrian daudelako. Ekipamendu hauek beharrezkoak dira produkzio prozesu eraginkor eta zehatza bermatzeko, pieza guztiak ondo muntatzea eta produktuak kalitate estandar altuenak betetzea ziurtatuz. Gainera, konponketa lanetan, lokailu eta erreminta egokien erabilerak kargagailuen bizitza erabilgarria luzatzen du, hondakinak murriztu eta baliabideen berrerabilera sustatuz. Gure langileek tresna hauekin egindako lana ezinbestekoa da, produktu fidagarri eta iraunkorra lortzeko.

Finantza baliabidea guk ipinitako diru-sarreretan oinarritzen da, proiektuaren hasiera eta garapena ahalbidetzeko ezinbesteko palanka ekonomikoa izan delako. Gure aurrezki eta inbertsio propioak erabiliz, independentzia eta kontrol osoa mantentzen dugu erabaki estrategikoetan, enpresaren bideragarritasuna bermatzeko. Hasierako kapital honek kargagailuaren diseinua, prototipoen garapena eta produkzio prozesua martxan jartzeko aukera eman digu, beste finantza-iturrien beharrik gabe. hazkundera bermatzeko.





FUNTZESKO JARDUERAK


Gure negozio-ereduak funtziona dezan, ezinbestekoak dira jarduera funtsezkoak, hau da, gure produktua merkatuan arrakastaz eskaintzeko beharrezkoak diren ekintzak. Jarduera hauek gure produktua garatzeko, merkaturatzeko eta mantentzeko ardatz dira.


Ekoizpena:

Dinamo bujeak bizikletetan muntatzea, gailu elektronikoak mugimendu bidez sortutako energiaren bidez kargatzeko aukera ematen dutenak. Funtsezkoa da kalitate handiko materialak erabiltzea eta muntaketa zehatza bermatzea, gure produktuak iraunkorrak, seguruak eta eraginkorrak izan daitezen.

Arazoak konpontzea:

Bezeroek aurki ditzaketen arazo teknikoak konpontzeko zerbitzu eraginkorra eskaintzea, hala nola bateriaren karga-sisteman arazoak, bujea muntatzeko doikuntzak edo bizikleta modelo desberdinekin bateragarritasun-arazoak.





FINANTZAKETA PLANA

Kooperatiba bat izango garenez, bakoitza 750€ jarri behar dugu sorttzeko


Kargadore bat muntatzeko ordu erdi behar dugu

- 480€: lokalaren alokairua.
- 700€:ordenadorea
- 130€:pantalla
- 150€ : erramienta
- 4 langile gara eta bakoitzaren soldata 1323€ da, langile bakoitza 436,59€ kostatzen zaigu gizarte segurantzaren eta 4 langileak 1746€ guztira.

400€ egokitze lana margotzeko lokala eta argiak jartzeko.

3000€: jartzen dugu guztira epresa montatzeko, 750€ langile bakoitza
2500 kargadore saltzen dugu 180€ bakoitza, orduan 40000€ irabazten ditugu hilabetero.

Langile bakoitza 176 hordu lan egiten du, hilabetero eta lehenengo hilabetean
300 kargadore montatuko dugu eta hori montatzeko 150 hordu behar dugu,
hurrengo hilabetean 350 kargadore eta 175 hordu behar ditugu gero hurrengo
hilabetean 400, 200 ordu behar dugu, gero 450 montatuko dugu, 225 hordu eta
beste hilabetetetan 500 kargadorea zer da 225 hordu hilabetean eta hori 2
pertsonekin lortu ahal dugu.



FINANTZAKETA PLANA

	ALT XORTEGI PLANA											
	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	urria	azaroa	abendua
DIRU SARRERAK												
Enpresariaren ekarpenak	20000	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Eskatutako maileguak												
Salmentak	32000	35000	40000	40000	40000	40000	40000	40000	40000	40000	40000	40000
Dirulaguntza publikoak												
Bankuko kontu korrontearen interesak												
SARRERAK GUZTIRA	52000	35000	40000	40000	40000	40000	40000	40000	40000	40000	40000	40000
DIRU IRTEERAK												
Aktibo finkoen erosketa	1200											
Hornitzaileak (materialak ekoizpenerako)	14.222	15.555	17.777	17.777	17.777	17.777	17.777	17.777	17.777	17.777	17.777	17.777
Alokairuak	480	480	480	480	480	480	480	480	480	480	480	480
Aseguruak	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200
Maileguaren interesen itzultzea												
Soldadak	5292	5292	5292	5292	5292	5292	5292	5292	5292	5292	5292	5292
Gizarte Segurantzak	1746	1746	1746	1746	1746	1746	1746	1746	1746	1746	1746	1746
Hornidurak												
Ura			40			40			40			40
Argia	50	50	50	50	50	50	50	50	50	50	50	50
Telefonia												
Internet	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40
Publizitatea	2000	2000	2000	2000	2000	2000	2000	2000	2000	2000	2000	2000
Zergak						39634						
Egokitze lanak	800											
IRTEERAK GUZTIRA	27030	26363	28625	28585	28585	68259	28585	28585	28625	28585	28585	28625
SARRERAK - IRTEERAK	24970	8637	11375	11415	11415	-28259	11415	11415	11375	11415	11415	11375
IRTEERAK BANKETZEKO KONTU KORRONTETIK	24970	33607	44982	56397	67812	39553	50968	62383	73758	85173	96588	107963